



SARRERA:

EUSKALDUN EUSKARAREN ERABILTZAILIAK

Txosten honek, kalitatezko euskara guztion erronka dela azpimarratzea ezezik, gure eraginpeko alor guztietan kalitatezko euskara erabiltzeko eta sustatzeko ahaleginak egin behar direla gogoraraztea du helburu. Horretarako, jarraian aditzera emango ditugun hainbat arrazoi direla eta, geure lan-esparruan, hots, *helduen euskararen irakaskuntzan*, prestakuntzarako eta gogoetarako bide emango duten urratsak deskribatzen saiatuko gara.

Kalitatezko euskararen auzian HABEren erantzukizuna itzela da. Hasteko, badakigu euskalduntze- eta berreuskalduntze-egitasmoak eginkizun garbia duela: euskaldunak sortzea; euskararen erabiltzaileak; eta hauek izan daitezela habitualak, erabilmoduak, erabilguneak... ahalik eta gehien ugarituz. Helburua zein den jakinda, helburu hori lortzeko zer behar dugu? Hizkuntza *ezagutu* beharko dugu, berau erabiltzeko *gogo* eduki beharko dugu eta, azkenik, *giroa* beharko dugu, euskaraz aritzeko giro erraza. Baina, horretarako, euskara txukunaren erabiltzaile eta ondorioz zabaltzaile eta biderkatzaile izango diren euskaldunak sortu behar ditu. Bestela, alferrik ariko gara. Horregatik, hiztunen hizkuntz kalitatea zaintzeko baliabideak jarri beharko ditugu, *euskaldun euskararen erabiltzaileak* sortu nahi baditugu.

Jakin badakigu, dena den, euskaldunak ugaritzeko egitasmoek lehentasuna izan, izango eta gaur egun ere dutenean, estimazio gutxiko gaia dela kalitatearena. Oso gai korapilotsua da, gainera. Hizkuntz kalitatearen ezaugarriak sistematizatu eta sailkatzea berez oso eginkizun irristakorra da, eta zer esanik ez nor-





malizazio-bidean dagoen hizkuntzaz ari garenean. Zaila da, izan ere, gramatikaz kanpoko osagai horien "izaera" edo "egitura" atzematen, ikasten eta irakasten. Baina, hala eta guztiz ere, eta denon mesederako, euskararen bilakaeran, zuzentasunari, gramatikaltasunari eta egokitasunari buruz, zalantzabide gertatu eta gertatzen diren hainbat eta hainbat hizkuntz molde argitzeko bide asko urratu dira. Horietaz baliatu beharrean gara. Eginda dagoenaz baliatu eta ez dagoena egitasmo bihurtu. Hizkuntz ereduak aberasteko eta azken finean kalitatezko euskara lortzeko indarra non erabilia badago eta.

Jarraian azalduko dugu geure egitasmoen hezurdura eta, ahal den neurrian, mamia. Gure proposamena ez da inolaz ere euskararen erabilera eta corpusaren ezagutza areagotzeko saioen aurkako apustua. Ez horixe. Gure proposamena helburu horren indargarri eta sustagarri izatea nahiko genuke. Hizkuntzaren kalitateaz arduratzeak, hizkuntz eredu egoki-zuzenaz aritzeak ez du zertan kantitatearen ibilbidean etenik sorturik. Hiztun berriak eta hizkera berriak irabazteko irrikak ez gaitzala itsutu. Horixe nahiko genuke. *Euskaldun euskararen erabiltzaileak* sortzeko urratsak eta baliabideak zein izan ote litezkeen zehazteko asmoz, bi hitzetan oinarritzko printzipio batzuk gogoraraziko ditugu:

Euskararen gaur eguneko erabilmodu eta erabilgune, erabilgai eta erabiltzaile desberdinen ezaugarriak hartu behar ditugu kontuan hizkuntzaren kalitateaz ari garenean. Gauza jakina da hizkuntzak gramatikaren corpus arau-emaile eta deskribitzailea baino osagai gehiago dituela, eta gramatika-zuzentasunak, zuzentasunak bere horretan, ez duela bermatzen komunikazioa, ez ahozkoa, ez idatzia. Hala ere, hortik hasi beharko genukeela uste dugu. Corpusaren deskripzioak berealdiko garrantzia du. Euskaltzaindiaren eta beste erakunde gaituen lana da corpora deskribitzea eta hizkuntz irizpideak definitzea. Ondorioz,





euskararen batasunerako adostutakoak oin hartuta, HABEK zer corpus irakatsi erabaki beharko du. *Corpus pedagogikoaz* ari gara, kasu honetan (Aurreraxeago helduko diogu behar den bezala kontzeptu honi).

Corpus hori garatzeko, hiru isuriko *prozesu bat* jarri behar da martxan. Eta "isuriko" diogu hirurek elkarri heltzen dioten ekintzak direlako:

- Euskara IRAKASLEAK esparru linguistikoan etengabe hezi beharko lirateke. Aholkularitza serio bat antolatuz, horien ezintasun edo zailtasunak gutxitzen ahalegindu beharko genuke. Irakasleak hizkuntzen irakaskuntzan ezezik, euskararen irakaskuntzan ere trebatu behar ditugu. Nekez irakatsiko dugu euskara eta euskara egoki-txukuna, ahalegin guztiak eredu didaktikoetan bakarrik jartzen baditugu.
- BALIABIDEAK, TRESNERIA: Ageriko nahiz ixilpeko ikas eta irakasbaliabide guztietan txertatu behar dira hizkuntz irizpideak.
- EBALUAZIOA: Etengabeko ebaluazioa egin beharko da. Batez ere, sistema honen beronen jarraipena eta ebaluazioa. Eta komeniko da helburu bertsuekin lanean ari diren beste lan-taldeekin harreman estuan egotea, haien ekarpenak gure mesederako izango direlakoan baikaude.

Garapenaz aritu gara orain arte. Corpus hori definitu beharko litzateke alde zuzenetik. Ondorengo puntuetan definizio horretan lagunduko diguten gogoeta batzuk, oso oinarritzakoak, azalduko ditugu:

- Idatziko ereduak deskribatu beharko dira eta horretarako irizpideak erabaki: kode idatziaren berezko ezaugarriak atzeman beharra, euskarazko idazmena bete-betean garaturik ez egotearen karga, gramatikazko eta grafiazko zuzentasunera mugatu beharra...
- Ahozko ereduarekin beste hainbeste egin beharko da. Ahozko kodea jaso gabe egoteak, ordea, ahaleginaren handia bistarazten du.



Baina hasteko, *egun irakasten den corpusaren deskripzioak* emango dizkigu lanik handienak. Uste batzuk badauzkagu, jakina. Urte askoan mundu honetan aritzeari esker, euskararen kalitateari kalte egiten dioten hutsegite eta zabarkeriak atzemanda dauzkagu. Baina, atzematate hutsarekin ez da nahikoa, aztertu, sailkatu eta ahal dela sitematizatu egin behar baititugu. Lehentasun handiko egitekoa da eta komeni da, esate baterako, ikasleen produkzioa aztertzeetik hastea. Gure proposamena hortik abiatzea da.



EGUNGO EGOERA

Ondorengo lerro hauetan, lanerako eskema bat proposatuko dugu. Marko zabal xamarra da. Dena dela, xehe daiteke gehiago eta zehaztasun handiagoz azaldu. Aukera-aukeran txosten honetara honela ekartzea erabaki dugu.

Egoeraren deskripzioa: egungo ikaslearen Corpusa

1.- Produktuaren ikuspegitik: (Ikasleen azterketak: ahozkoak eta idatziak)

1.1.- Aztergaien kategorizazio nagusia.

Gramatika: morfosintaxia.

Baliabide lexikalak: hiztegia.

Testuak: esaldiak edo esaldi-kateak.

Ahoskera: doinua, entonazioa.

1.2.- Akatsen sistematizazioa:

1.2.1.- Gramatika / Norma:

- Ortografia

- Morfosintaxia

- Semantika: erderakadak, kalkoak, analogiak...





- 1.2.2.- *Diskurtsuaren antolaketa*
 - *Ideien arteko loturak: koherentzia*
 - *Pasarte batetik besterako loturak (lokailuak): kohesioa*
- 1.2.3.- *Egokitasuna*
 - *Euskalkia*
 - *Erregistroa*
- 1.2.4.- *Aberastasuna*
- 1.2.5.- *Jatortasuna, freskotasuna*

1.3.- *Akatsen iturria:*

- 1.3.1.- *Alfabetatze-prozesuaren diseinuari zor zaizkionak*
- 1.3.2.- *Euskalduntze-prozesuaren diseinuari zor zaizkionak*
- 1.3.3.- *Ikasleari zor zaizkionak: bere ikasprozesuaren ondoriozkoak*
- 1.3.4.- *Ikasmaterialari zor zaizkionak:*
 - Euskaltegiko ikasmateriala.*
 - Beste euskaltegietako ikasmateriala*
 - Saretik kanpoko ikasmateriala: bibliografia sailkatuz.*
- 1.3.5.- *Irakasleari zor zaizkionak:*

Sistematikoak diren ala ez, batasuna eginda dagoen egituretan den ala ez...

- 1.3.6.- *Euskaltegiari zor zaizkionak:*
 - Hizkuntz irizpiderik ezaren ondoriozkoak.*





Onusteko hizkuntz irizpide baina agian desegokien ondoriozkoak.

2.- Prozesuaren ikuspuntutik:

*Ikasmaterialak eta irakasmaterialak
Irakasleen hizkuntz eredua
Prozesuan parte hartzen duten baliabide guztiak...*

4.- Euskaltegietako paisaia linguistikotik:

*Ikasgela barrukoa eta kanpokoa
Ikasleei propio zuzendutako ohar eta mezuak
Ikasleei nahiz irakasleei zuzendutakoak*

5.- Euskaltegietako hizkuntz politika: euskaltegika, eskualdeka, lurraldeka...

*Hizkuntz politikarik ez
Hizkuntz politika: euskara-eredu neutroa, tokian tokiko ezaugarri soziolinguistiko eta dialek-
talei erreparatu gabe.
Hizkuntz politika: euskara-eredu egokia eta tokian tokiko ezaugarri soziolinguistiko eta dialek-
talei erreparatuz.*





Egungo corpusaren egoera aztertzeak zertan asmatu dugun eta zertan ez ikusteko balioko du. Alegia, indarrak non jarri behar ditugun jakiteko erabakiorrak izango direla azterketa honetatik jasotako datuak. Hona hemen zenbait proposamen:

Lehenik eta behin, hizkuntza hobetzeko ikastaroak antola daitezke. Gainera, corpusaren azterketatik eratorritakoak ikastaroan bertan praktikarako materiala izatea litzeteki egokiena. Ondoren, HABEko langileen hizkuntz prestakuntza hobetzeko pentsatutako ikastaroaren zirriborro bat doa. Azalduko dugun proposamena zuzenketa eta itzulpengintzan, corpus pedagogikoan eta garapen lan-taldean dihardugun tekniarion artean diseinatu dugu. Bere hizkuntz maila hobetu nahi duen beste edozein lan-talderentzat ere balioko duelakoan, hona hemen eskema:

Hiru maila ditugu begiz jota:

1. maila: ikastaroa (xumeena eta praktikoena)

Euskaltzaindiaren arauak:

Zer den arau eta zer ez (eta noiztik)

Zer den gomendio edo proposamen eta zer ez

Batasuna eginda dagoenean...

Batasuna eginkizun denean...

Okerrak zuzenduz

Idazki administratiboak





Batez ere, Euskaltzaindiaren arau-gomendioen azalpena eta okerrik ohikoenak zuzentzeko saioak.

2. maila: idazkuntza

Idazkuntza

Euskararen eredu(k)

Idazki pedagogiko eta administratiboak

Edukia: -Komunikazioa: ahozkoa eta idatzizkoa

Eduki pragmatikoak: testu-mota eta testu-erak, testuingurua, komunikazio-egoera, komunikazio-kanala, komunikazio-estrategiak...

-Estiloa: zer den, egungo joerak, hizkera berezituak...

-Testuen barne-antolaketa

-Euskararen baliabide morfosintaktikoak

-Euskal lexikologia:

Baliabideak azaldu eta erabilera makurrak zuzendu... Hitz elkartuak, maileguak, hitz eratorriak: idazteko arauak eta gomendioak...

-Testuen zuzenketa





3. maila: itzulpengintza

Teoria

Baliabideak

Okerren zuzenketa

Kasu berezi batzuk

Edukia: *-Printzipio nagusiak*

-Helburuak eta sailkapena:

*Igorri/hartzearen arabera (ahozko nahiz idatzizko itzulpena, bat-batekoa...);
testu-motaren arabera (literarioa, zientifikoa, historikoa...; edukitzailearen
arabera (hizkuntz unitatea, hitza, parrafoa...); testuingurua...*

-Hainbat arazo:

*Esparru semantikoari dagozkionak, gerundio-gerundiboak, erlatibozko esal-
diak, erakusleak, deiktiko-anaforikoak, hitzen ordena, lokailuak, nominal-
izazioa, erdarazko adjektiboak eta euskarazko genitiboak...*

-Eta beste...

Honekin batera, batak ez baitu bestea kentzen, bitartekoak jarri daitezke dagoeneko atzemanda dau-
den beste hutsuneak konpontzeko, noraeza eragozteko eta kezka eta zalantzak bideratzeko: telefono lin-
guistikoa, aholku-taldeak, inkestak, berripaperak...

Ikastaroak eta bestelako saiakerak egokiak dira hizkuntza hobetzeko eta beronen kalitatea bermatzeko.





Egia da, ordea, hori ez dela nahikoa. Hiztun-talde bati zuzendutakoak dira normalean, propio haientzat diseinatuak. Baina HABEk euskalduntze eta alfabetatze-prozesuan diharduten ikasle guztien hizkuntz kalitatea hobetzea du helburu. Horregatik, oinarrira iritsi nahi badugu, derrigor Corpus pedagogikoaren berdefinizioari heldu behar diogu.



CORPUS PEDAGOGIKOA

Corpus pedagogikoa irakatsiko den corpora da. Corpus hau mailakatua, sailkatua eta hizkuntz helburu batzuei erantzuteko tajutua dago. Bestela esanda, Oinarrizko Kurrikuluaren esanetara dago eta bertan mailaren arabera eduki pragmatikoez biltzen dituzten kontestu, testu-mota eta testu-erak kontuan hartuz eta kasuan kasuko baliabide linguistiko-diskurtsiboez baliatuz borobildutako osotasuna da.

Gure ikasleak lau trebetasunetan euskaraz zuzen eta egoki gaituak izatea nahi badugu, ezin dugu horien erreperetoria eredu neutro, formal, inbertsonalera mugatu. Hori gramatikaren aldetik zuzena bai izango da, baina, agian, komunikazioa ez du bermatuko. Horregatik, komunikazioan parte hartzen duten osagai guztiak hartu behar dira kontuan hizkuntza irakasterakoan. Arau-gomendioak ez dira nahikoak.

Euskararen irakaskuntzan hizkuntzaren kalitatea balio absolututara ekarri da. Hizkuntzaren kalitatea, ordea, hizkuntzaren erabilera egokia ala desegokia izatea, hori egoeraren arabera da. Hiztun-idazle orok (entzule-irakurleek, beste hainbeste) beren helburu linguistikoa lortzeko normari huts-hutsik ez dagozkion erregelak batzuk betetzen dituzte. Eduki pragmatikoez eta eduki diskurtsiboez emango diote adierazpide linguistikoari bere izaera eta nortasuna. *Nork, zer, nori, nola, noiz, non* eta *zertarako* esaten dion ezinbestean aztertu behar da, halako adierazpide "egokia" den ala ez den jakiteko. Beraz, baliabide gramatikalak ongi erabiltzera, hots, arau gramatikalak zuzen betetzera mugatzeak ez du geure helburu linguistikoa lortuko dugunik bermatzen.





Zuzentasun-egokitasun-jatortasunaren auzia gai korapilotsua da benetan. Hala ere, corpus pedagogikoan ari garenok jarraian azalduko ditugun irizpide eta printzipioen aldeko apustua egiten dugu.

- Corpus pedagogikoak corpus estandarretik edango du, baina malgutasunez eta egoera bakoitzarekiko egokitasunez, hizkuntza eredu desberdinei eta euskalkien egoera desberdinei nolabait egokitu ahal izateko baliabideak eskainiko ditu.

- Sailkatua egongo da. Batetik, oinarrizko kurrikuluko mailen arabera, eta bestetik, testu-tipologi jakin baten arabera. Bidegurutze horretan definituko dira testu-motak eta testu-erak, eduki pragmatikoen esparua osatuko dutelarik. Bertan ikusi eta garatuko dira testuaren eta kontestuaren arteko konpromezuak: komunikazio-era, komunikazio-kanala, igorle-hartzaile harremana, komunikazio-xedea... Eta testuak berak dituen berezko ezaugarriak: adierazpide diskurtsibo-linguistikoak...

- Honez gain, irizpide extra-testualak eta intra-testualak ere hartuko dira kontuan, sailkapena egiteko garaian. Esaterako, diskurtsu-motak *erabilera-eremuaren arabera, akademikoa, famili artekoa, literarioa, periodistikoa, juridikoa, politikoa, ekonomikoa, egunerokoa, aisi-denborakoa...* izan daitezke. *Asmo edo xedearen arabera, informatzeko, irakasteko, asmoak aldarazteko, agintzeko...* Parte hartzaileen arteko harremanaren arabera, *publikoa/pribatua, formala/informala, hierarkikoa/berdintasunezkoa, urruti/intimitatea...* Testu-motak, *testu-sekuentziak, ordea, narrazioa, deskripzioa, azalpena, argudioa, instrukzioa, elkarrizketa...* izango dira, eta *testu-erak, genero testualak, notizia, erreportaia, artikulua editoriala, esku-titza, txostena, akta, oharra, agurra, ipuina, gida turistikoa, horoskopoa, olerkia, eta abar...* Asko dira osagai hauek konbinatuz egin daitezkeen sailkapenak.





- Corpus pedagogikoa aztertzeko testu-gramatikak ikasten dituen teoriak landuz eta, esan bezala, testu-tipologia jakin baten arabera, testuen ezaugarri unibertsalak zein euskararen beraren berariazko ezaugarriak deskribatuko ditugu. Hori dela eta, egoera pragmatiko bakoitzari sintaktikoki perpausak eta semantikoki proposizioak lotzeko bidea nolakoa den ikertuko dugu. Eta ikertu diogu, gehiena ikerkizun dagoelako zoritxarrez. (Teorizazioak teorizazio, ondorio praktikokoak behar ditugu, baina, hori HABEren egiteko soila ez denez, beste erakundeekin elkarlanean aritu beharko du, ahal den azkarren emaitzak lortzeko).

- Ereduak behar dira, bai idatzizkoak eta baita ahozkoak ere, ezaugarri horiek sistematikoki sailkatzeko eta material pedagogiko modura erabiltzeko. Horretarako, ezaugarri unibertsalak eta euskararenak aztertzeko eta erabilera pedagogikoa izango duten testu-biltegi bat osatzen joateko, benetako testuak, testu errealak bildu beharko ditugu. Baina, zein dira benetako testuak? Nola jakin ez direla itzulpen? Zein molde erabili? Euskaraz ala erdaraz pentsatutako testuak diren atzemanek gero, zer egin? Onartu ala baztertu? Ez al dira errealak eta pragmatikoak? Ez al dira gizarte honetan sortutakoak? Euskararen erabilera murrizt honetan, pragmatikaren irizpidea motza geratzen da geratu ere, eta askotan hedapen-printzipioari esker, euskaraz ez dauden testu-erak erdarazko ereduak kopiatuz sortu dira. Horregatik, galdera hauen erantzunek gogoeta sakon baten ondorioz etorri beharko dute.

Esan dugu, ereduak eredu, euskara-irakasleak ikasmaterial gisara erabiliko dituela benetako testuak. Eztabaida hau ilustratzeko, ikus dezagun adibide bat. Benetako ohar bat da, pragmatikaren lege guztiak betetzen dituen, baina, adierazpide linguistikoen esparruan hutsegite nabarmenak dituen, komunikazioa eragozten duena.





LEZO ETA PASAIA TRAFICOARENTZAT ITXITAK 32. BEHOBIA-DONOSTIA

IGANDEA, 1996, ARAZOA 10

Behobia-Donostia lasrterketa Lezotik pasatzen denerako aurrikusita dauden bidemozketak direla eta. 11etatik 13etara berebila erebili nahi dutenek lasterketa ondoko aparkaleku alternatibo hauetan utz dizatela gomendatzen ditugu:

a) Pasai Donibane eta Lezo Ingurua:

Oreretan, RENFEko geltoki ondoan.

b) Tintxerpe eta Pasai San Pedro:

Herrerako biltegietan (Portu inguruan)

Erreserbatuak eta desberdinen pabelloi sarrerak errespetatzen.





Euskara-irakasleek horrelako benetako testuekin egiten topo dute. Horixe bai errealitatea! Beren eginkizun didaktikorako ez diete balio eta, gainera, ikasleak ikusten du euskaraz edozer edonola idazteko eta adierazteko lizentzia dagoela. Izan ere, euskarazko komunikazioan sortzen diren interferentziak, narraskeriak eta zabarkeriak eta utzikeriaren ondorio diren adibide horiek oso kaltegarriak baitira.

Bestela esanda, askotan benetako testuak dira irakasleen etsairik handienak. Horrelakoetan, irakasleak bi aukera dauzka: testua txukuntzea, baina horrela "benetakotasuna" kenduko lioke, edo ez erabiltzea. Berez murrizta den testu-ekoizpenetik aukera egin beharko du.

Corpus pedagogikoaren kontzeptua eta orain arte esandakoak piska bat borobiltzeko, bi ideia azpimarratuko ditugu:

1.- Euskara-irakasleek beren jardun didaktikorako mesedegarri eta ez kaltegarri izango diren testu-ereduak atzemateko gauza izan behar dute. Jarritako adibidea mutur-muturrekoa da. Hain muturrekoak ez direnek ematen dituzte lanak. Izan ere, askotan erdaratik etorritako makur asko eta asko ikusi eta zuzentzeko gauza ez baikara izaten. Horregatik, eta ez testuak biltzeko bakarrik, geure hizkuntz prestakuntza etengabe zaindu behar dugu, geure formazioari behar adinako arreta ipiniz eta funtsean *Hizkuntzen irakaskuntzatik hizkuntzaren/euskararen irakaskuntzara* igaroz. Honelako saiakerak eginez gero eta irakasle-teknikariok geure eraginpeko lan-esparruetan kezka eta hobeitzeko borondatea erakutsiko bagenu, *Euskaldun traketsetik euskaldun garbiaren mintzajardunera dagoen tarte*a, *Euskaldunberrien gaitasun-gabezietatik euskaldunzaharraren moldeetarako*a eta *Etxeko euskaratik edo euskalkitik euskara batura dagoena* (Zalbide, 1994) txikituko genituzke.





2.- Euskara-irakaslea hizkuntz irakasle izateaz gain hizkuntz hezitzaile ere izan beharko du. Hizkuntzaren alderdi linguistikora mugatu gabe, alderdi soziolinguistikoaren berri ere eman beharko lioke ikasleari.

Garapen-bidean dagoen hizkuntza ez normalizatua irakasten dugunok gogotik adierazi behar dugu merezi duen eta zor zaion begirunez ikasi eta erabili behar dela. Horrekin batera, normalizazio-bide horretan ikaslea bera partaide eta ez ikusle bihurtzeko ahaleginak egin behar ditugu. Bere jardunak hizkuntzari zenbateko kaltea egin diezaiokeen irakatsi; oso aintzat hartzekoak baitira, besteak beste, hiztun berriak eta hizkera berriak irabazte-prozesuak eukarazko komunikazioan sortzen dituzten interferentziak eta honek berekin dituen ordain-sariak.

Corpus arau-emaile eta deskribitzailea erabat amaitu gabe dagoela azpimarratu eta batasuna egiteko bidean dauden egituren zain errespetoz itxaroten irakatsi.

Euskalkien berri ematea komeni da. Euskara batuaren eta euskalkien artean leiharik ez dagoela esan behar zaie, elkarren aberasgarri baino ez direla. Hori dela eta, euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak, ereduak (ahozkoak, batez ere) eta erregistro diferenteen balioaz jabetzen irakatsi behar diegu, tokian tokiko egokitzapen dialektalak eginez.

Hizkuntzen artean parekotasun itsu-itsurik ez dagoela ere gogorarazi behar dugu. Hizkuntzek, beren baitan, kultura jakin baten aztarnak jaso eta gordetzen dituztela, eta askotan batek ez duela besteko hainbat egitura linguistikoren ordain zuzenik, eta gainera ez duela zertan izanik ere, ez jatorrizkoa eta ez xede-hizkuntza gutxietsi gabe.





Atsegingarri litzateke guretzat orainarteko ohar hauek guztiak zer edo zertarako balio izatea. Onustez idatziak dira eta eskuartean dugun egitasmoa indarberritzeko garatuak. Txosten honen bidez, gure iritzizko eta borondate oneko ideia-sorta eta proposamen hauek zuen eskura jarri nahi izan ditugu, denon eguneroko lanean erabilgarri eta probetxuzkoak izan daitezen.

Eskarne Lopetegi Zalakain
HABEko teknikaria

